



UGAO-MIRABALLESEN AP68-AREN ERAGIN AKUSTIKOA ARINTZEKO NEURRIAK HARTU DITU “VASCO ARAGONESA” AUTOPISTAK

Egungo Udalbatzak zein aurrekoek udalerraren parean AP68tik igarotzen diren ibilgailuek sortutako eragin akustikoa ahal den neurrian konpontzeko asmoz “Vasco Aragonesa” Autopistarekin eta Sustapen Ministerioarekin egindako gestio ugarien ostean, azkenean ere Ugao-Miraballesko herritarrei aipatutako eragozpenak arinduko dizkieten neurri zuzentzaileak ezartzeko lanak hasi ziren irailaren amaieran. Udalak urteak daramatza lanean zentzu honetan, eta honek egindako gestioen ondorioz Diputatuen Kongresuan gaiaz behin baino gehiagotan jardutera iritsi ziren.

Lanak 2014ko otsailerako amaitzea aurreikusten da, eta batez ere honako hau da egingo dena:

- ➔ San Bartolome kale gaineko biaduktoan pantaila akustikoak ezarriko dira
- ➔ Leitoki aurrean eta eskolen aurrean landare-pantailak ezarriko dira
- ➔ Biaduktoaren zabalkuntza-junturak ordezkatuko dira, haietan sortutako zarata murrizteko

Neurri hauekin, autopistak sortutako eragozpenak urteetan pairatzen ari diren herritarren bizi-kalitatea hobetzea espero du udalak. “Jakin badakigu zarata ez dela erabat desagertuko baina badakigu, baita ere, berau neurri handi baten murriztu egingo dela, legeak baimendutako mailen barruan kokatuz”, adierazi du Ekaitz Mentxaka alkateak.



Udalak 2014rako tasen ordenantza onartu du

Gobernu taldeak eta Bilduk izandako negoziatioaren ostean, Udalbatzak 2014rako zerga eta tasen proposamena onartu zuen urriko Osoko Bilkuran, EAJ-PNVren aldeko botoekin eta Bilduren abstentzioarekin.

Zenbait neurri onartu dituzte, besteak beste, OHZren tasa aldatzea: lehen % 1ekoa zen eta orain % 1,12koa da. Beste alde batetik, tasak eta zergak % 2,4 igotzea onartu zuten, nahiz eta honako hauek izoztu egin diren:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 1 eta 2 kategorietako turismoetarako (12 zerga-zaldi baino gutxiagokoak)
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)
- Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga (plusbalioa)
- Udal jabari publikoa modu pribatiboan erabili edo aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa (hesiak, aldamiok, edukiontziak eta abar instalatzea, eta ostalariek terrazak instalatzea)
- Zerbitzu publikoak eman eta administrazio jarduerak egiteagatiko tasa: A eta E1.a epigrafeak (estolderia zerbitzua eta etxeke zaborra biltzeko zerbitzua)
- Hirigintza espedienteak izapidetzeagatiko tasa, obra txiki nahiz handien kasuan

Horrez gain, eutsi egingo zaie 2013an eta aurreko urteetan aplikatu ziren hobariei.

Azkenik, % 1,5 igo dira kiroldegiko abonuen prezioak, eta izoztu egin dira sarreren prezioak, baita ikastaroenak nahiz gimnasioarena ere.

Kultur Etxearen harira, ez da igoerarik egin indarrean den prezio tartean.

Errezeta elektronikoa Ugao-Miraballesera heldu da

Herriko botikak eta anbulatorioak sistema hau erabiltzen dute joan den azaroaren 19tik

Euskadin, Errezeta Elektronikoa (e-errezeta) abian jartzen ari dira, EAE ko herritarrek medikamentuak modu seguruago eta errazago batean eskura ditzaten.

Gaur egun, Osasun Saitetik hainbat udalerritarra hedatzen ari dira sistema berri hau. Horien artean Ugao-Miraballes dago.

Azaroaren 19tik errezeta elektronikorekin, ohikoa den errezeta desagertu egingo da. Hala ere, baten batek paperean egindako errezetaren bat eukitzekotan amaitu arte erabili beharko du, soilik orduan izango baitu sistema berrira sartzeko aukera.

Nola funtzionatzen du e-errezetak?

Bezeroak mediku-kontsultara doanean osasun txartela eraman beharko du. Bertan ez diote errezetarik emango, tratamendu-orria jasoko du: informazio argi eta erraza. Bertan medikamentuen ize-nak, dosiak eta tratamendua amaitzen den eguna edo berriz aztertu beharreko eguna agertuko dira.

Farmazian, norberak osasun-txartelaren bidez identifikatuko du bere burua, eta zuzenean emango dizkiote botikak. Etenik gabeko medikazioa agindu izatekotan, farmazian bertan jaso ahal izango du, aldi-aldi, kontsultara joan beharrik gabe, hurrengo mediku-azterketa izan arte. Beraz, ez da osasun-zentrorra joan behar izango; zuzenean, farmazian emango dituzte medikamentuak.

E-errezeta, eroso ez ezik, seguruagoa ere bada, osasun-profesional orok jakingo baitu zer botika hartzen ari garen, eta hala, bikoizketak saihestu egingo baitira.

Nahi duenak, informazio gehiago eskura dezake, bai bere osasun-zentroan bai www.e-errezeta.net webgunean.



Udalak udal etxebizitza tasatuen ordenantza aldatu du Ugaoko herritar gehiagok sartzeko aukera izan dezan

Oraintsu, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Goikirin saldu gabe dauden etxebizitzak zuzenean, zozketa barik, esleitzeko baimena eman dio VISESAri, Ugao-Miraballesen etxebizitza-eskatzaileen zerrenda agortu egin baita.

Esleipen zuzen horren ondorioz (VISESA 2014ko urtarrilean iragartzen hasiko dela kalkulatzen da) **babeseko etxebizitza eskuratzeko baldintzak betetzen dituen** EAEn errolatutak edonork erosi ahal izango du Goikirin etxebizitza bat. Bertan, egindako 114 etxebizitzetatik, Babes Ofizialeko Etxebizitza (BOE) bat eta 5 Udal Etxebizitza Tasatu (UET)saldu barik daude.

Beraz, ikusita egun UET bat eskuratzeko izan beharreko diru-sarreraren tartearekin Ugaon Goikirirako etxebizitza-eskatzaileen zerrenda agortu egin dela, eta kontuan hartuz Eusko Jaurlaritzaren araudian etxebizitza tasatuentzako 12.000-50.000 € diru-sarrera tartea ezartzen dela, Ugao-Miraballesko Udal Osoko Bilkurak aipatutako tartea aldatzea onartu zuen joan den azaroaren 26an, horrela Ugaoko herritar gehiagok etxebizitza tasatuetan sartzeko aukera izan dezan. Kontuan hartu beharra dago batezbesteko diru-sarrerak direla.

Horregatik guztiagatik, Ugao-Miraballesko Udalak etxebizitza tasatu bat eskuratzeko interesa duten herritarrei jakinarazten die diru-sarrera tarte berria dagoela eta VISESAk etxebizitza hauen zuzeneko esleipena 2014ko urtarrilean hasteko aurreikuspena duela. Beharrezko baldintzak betez Goikirin babeseko etxebizitza bat eskuratzeko interesa izan dezaketenek 94 661 26 20 telefonoan jaso dezakete esleipen-prozeduraren gaineko informazioa.

Ekaitz Mentxaka Alkateak, behin baino gehiegotan eskatu dio VISESAri etxebizitza hauek alokairu sozialerako gorde ditzala, baina erantzuna ezekoa izan da “gutxienez hilabete batzuk pasatu arte”, VISESAren lehenengo asmoa etxebizitzak “saltzea” baita. VISESAk jakinarazi dio etxebizitzak hile batzuetan saldu ezean, orduan baloratuko duela etxebizitzok alokairurako gordetzeko aukera, erosteko aukerarekin edo alokairu sozialean.



Hitzarmena Aldundiarekin tamaina txikiko etxeko hondakinak biltzeko zerbitzurako

Zerbitzu honek kalean kokatutako **edukiontzi zurietan** herritarrek lagatako tamaina txikiko material berrerabilgarriak kudeatzea du helburu; modu horretan, arropa, oinetako, osagarri, liburu, jostailu, bazar eta tresna elektriko nahiz elektronikoetako frakzioak utziko dituzte bertan. Ugao-Miraballesen 2 edukiontzi jarrita daude, Arandiako Aparkelukuan eta Sabino Arana kalean hain zuzen ere.

Hitzarmena sinatu ondoren, zerbitzu hau, aurrerantzean, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatuko du, modu horretan, etxeko hondakin horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoak izatera pasatuko dira.

Zerbitzuaren kostua Bizkaiko Foru Aldundiak ezartzen duen prezio publikoak baldintzatuko du. Kalkulatzen denez %75 inguru aurreztuko da, egungo zerbitzuaren kostuaren aldean, hau da, 33.000 euro urtean zifra absolutuetan; eta hori foru erakundeak egindako ekarpenaren ondorio da.

Hondakinen kudeaketaren ondorioz, hitzarmenak elkarrenganako informazio fluxua aurreikusi du, hain zuzen ere, Bizkaiko Lurralde Historikoaren hiri hondakinen Behatoki Iraunkorraren bitartez. Erakunde bietako ordezkari osatutako Jarraipen Batzordeak zerbitzuaren bilakaera eta beharrian berriak jorratuko ditu.

Hitzarmenak **bost urteko indarraldia** izango du, eta indarraldi hori elkarren segidako bost urteko epeen bidez **luzatu ahal izango da**.

Udalak diktadura frankistaren garaiko Etxebizitza Ministerioaren logotipodun plakak kendu ditu udalerriko atarrietatik



Azken urteotan gure udalerriko auzo-komunitate ugari, euren kabuz, atarrietatik diktadura frankistaren garaiko Etxebizitza Ministerioaren logotipodun plakak kendu dituen arren, maiatzeko osoko bilkuraren erabakia betez, eta Eusko Legebiltzarrak egindako gomendioei jarraiki, Udak Brigadak oraindik geratzen zirenak kendu ditu.

Udalak Euskal Produktuen Katalogoaren 16. edizioaren 400 ale banatu ditu Ugaoko eskolako ikasleen artean

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu edizio berri honek.



Merkatuan dauden produktuen artean hautaketa egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa egiten da. Informazio gehiago www.katalogoa.org webgunean

Arrakasta jostailu-bilketan



Gabonak direla eta, Ugao-Miraballesko Udak jostailuak bildu ditu. Jostailuak, lehenengo eta behin, udalerriko umeei emango zaizkie, eta ondoren, Rezikletari – honek Caritas eta bere moduko beste ongintza-elkarte batzuen artean bana ditzan eta Galdakaoko Mundu Bat Elkarteari–azken hauek elkartzun-azoka bat antolatzen dute eta batutakoa “Elikagaien bankua” rentzako izaten da-. Galkorrak ez diren elikagaiak ere batu dira, batez ere esnea, olio eta azukrea. Hauek Caritaseri emango zaizkie.

Berbalagun taldeak Ugaon

Udalak, norbanakoaren ikasketa prozesuan zein udalerritan mailan euskara sustatzeko garaian hizkuntzaren erabilerak duen garrantziaz jakitun, herrian bertan antolatu ditu mintzapraktika (Berbalagun) talde hauek. Guztira 12 herritar ari dira, erabat doan, osatutako hiru taldeetan. Informazio gehiago Euskara Zerbitzuan edo Jane Jauregian

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko VI marrazki-lehiaketa

Azaroaren 20an amaitu da “Gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko VI. marrazki-lehiaketa”. Guztira 112 lan aurkeztu dira eta honako hauek izan dira maila derberdinetako irabazleak: Izaro Blanco, Emma Regueiro, Izaskun Perez, Aitor Bugallo, Ariane Cuevas, Maider Cano, Blanca Bajo, Iraia Kortajarena eta Maria Molina. Zorionak irabazleei eta parte hartzaile guztiei!

Lana aurkitzeko tresna berri bat: Beharsarea.net



Beharsarea euskarazko lana bideratzeko interneteko ataria da, doakoa eta euskaraz egiten den lana eskaini eta eskatzeko tresna erraz eta eraginkorra. Erabiltzaileek bi baldintza baino ez dituzte bete behar: batzuek lan baldintza duinak eskaintzea eta besteek lana euskaraz egitea. Euskaraz lana egiteko jendea aurkitu behar baduzu edota euskalduna bazara eta lana bilatu nahi baduzu, orain bide erraz eta zuzena duzu interneten: www.beharsarea.net

Udalak mozio bat onartu du Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta

Ugao-Miraballesko Udak talde politiko guztiek adostutako mozio bat onartu zuen, ahobatez, abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta.

Ugao-Miraballesko udalak, aipatutako mozioaren bitartez, bere gogoari adierazi du euskaraz gure egunerokotasunean gero eta toki gehiago har dezan, eta herritarrek animatu dituzten euskara gero eta gehiago erabiltzeko, ohiko eginkizun eta egoeretakoa hizkuntza izan dezaten.



OGORATU...

- Udalbatzeta aktak kontsulta ditzakezu www.ugao-miraballes.net udal webgunean (Udala: aktak).
- Iradokizunak bidali ditzakezu www.ugao-miraballes.net udal webguneari bidez (orri nagusiko eskuinaldean: iradokizunak), edo idatziz
- 2014ko udal aurrekontuei buruzko iradokizunak eta ekarpenak egiteko epea zabalik, www.ugao-miraballes.net udal webguneari bidez edo idatziz
- Abenduaren 16tik 31ra, 2014rako kiroldegiko abonamenduak eta jarduerak berritzeko epea zabalik
- Abenduaren 24an, arratsaldeko 18,00etan Olentzeroren etorrera El Jaro Kiroldegian
- Abenduaren 28an, arratsaldeko 18,30etatik 21,30etara Xaibor DJaren emanaldia Herriaren Enparantzan
- Urtarrilaren 5ean, Epifania eta Erregeen desfilea
- Urtarrilean Haurreskolan izena emateko epea zabalik. Martxoan, apirilean, maiatzan edo ekainean hasiko direnentzako